



**BARRIN
TOKIKOM**

Santanetan gogoa



RPS 271/12



ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745




aldaz
horts klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com

RPS 173/18



federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku eder
horts klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Eparantzeta, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Mari Jose Ruiz Porres



Doktorea

GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15

Madina Radiologia
Toribio Etxebarria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA EUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



RPS 280/16

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mag. 677 531 830



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olosope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



Badatoz sanbartolomeak!

BARRENen publizitatea jartzeko:

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritzia

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Isopaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

LETE

JANTZI DENDA

G-Star
Levis
Diesel
Replay
New Balance

LIKIDAZIOA
sozietate aldaketagatik

%50 era arteko
deskontuak

Lacoste
Etiem
Gant
Armani
Aeronautica

San Frantzisko, 36 behea - Elgoibar - 943 744 199 - odriozola-lete@hotmail.com

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Robotak kazetari

Askotan entzun dut teknologia berriek gizakion lanpostuak deuseztuko ote dituen kezka. Horren inguruan, aste honetan bertan irakurri dut Google enpresak Erresuma Batuko Press Association agentziari 706.000 euroko diru-laguntza eman diola, sistema infor-

matiko berria garatzeko. Itxuraz, sistema honek berri agentzia publikoen eta gobernuen datu-baseak eta adimen artifiziala erabiliz, egunero tokiko 30.000 berri 'idatziko' ditu automatikoki.

Sistemaren izena RADAR da (Reporters And Data And Robots). Arduradunen esanetan, sistema ez da guztiz autonomoa izango, bost kazetari kontratatuko baitituzte gainbegiraketa eta edizio lanak egiteko. Pentsa, bost kazetarik eta sistema informatiko batek egunean 30.000 berri idatziko dituzte! Konparaziorako datu bat: BARRENeko lantaldea bera bost lagunekoa da (kolaboratzaile mordoxka baten la-

guntzarekin)!

Dena den, ez da hau modu hone-tako lehen sistema. 2014tik, adibidez, Estatu Batuetako Associated Press agentziak martxan du hiruhilekoz hiruhileko finantza emaitzen inguruko berriak automatikoki idazten dituen sistema, eta, hari esker, milaka berri idatzi dituzte azken hiru urteotan.

Alde batetik, aspalditik daukagu asmakuntza berriek lanbideak desagerraraziko ote dituzten kezka, baina egia da baita ere, kasu askotan, asmakuntza berriok industria berriak jaioarazi dituztela (automobilek adibidez).

Ez naiz ni ekonomian aditua, eta ez dakit guzti honek nora eramango gaituen. Zer uste duzue zuek?

“RADAR sistema berriak egunero tokiko 30.000 berri ‘idatziko’ ditu automatikoki, berri agentzia publikoen eta gobernuen datu-baseak eta adimen artifiziala erabiliz”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Lehiaketa Espangarria

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain
hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuiztak ataletan adiera-
zitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalaa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN**
ARDURADUNA Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizaba-
laga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora
Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea
Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma
Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila,
Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ain-
hoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen An-
sola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz
Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander
Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Iratxe Agirreazal-
degi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu
Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92
ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ ESKERRIK ASKO

Eskerrak eman nahi dizkiegu herriko udaltzainei bere lan onarengatik.

Azkenengo hilabeteetan, arazo desberdinegatik, hiru aldiz behar izan dugu beraien laguntza eta jator eta azkar erantzun digute beti.

Mila esker zuen lanarengatik elgoibatarren mesederako baita.

Lorea Eizagirre

▶ CARITASEK MATERIALA BEHAR DU

Elgoibarko Caritasek dei bat egiten du, erretiratzeko edo botatzeko ondorengo materiala duenak gurekin harremanetan jar dadin, datorren astelehenean (uztailak 17) ostiralera (uztailak 21), 16:00etatik 19:00etara. Deitu telefono honetara: 943 740 842. Ondorengo materiala behar dugu: oheak, somierrak, armairuak, sukaldeko mahaiak eta aulkiak.

Elgoibarko Caritas

▶ OHARRA

Opor aurreko azken alea duzue hau. Hurrengo aldizkaria San Bartolome jaietan jasoko duzue. Uztailaren 28an itxiko dugu bulegoa, eta abuztuaren 28an zabalduko dugu berriro.

BARREN



Jose Ramon Salegi Urain

2017ko uztailaren 6an hil zen, 62 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Ramon Salegi Urain

2017ko uztailaren 6an hil zen.

**Lepoan hartu ta segi aurrera.
Eskerrik asko guztiagatik.**

Otegi - Arregi familia



Jose Ramon Salegi Urain

2017ko uztailaren 6an hil zen.

Beti gogoan izango zaitugu!

Zure lagunak



UZTAILAK 21, BARIXAKUA

19:00 Mendaroko Emakumeen Bina-kako VI. Raketa Txapelketa finala. Mendaroko Raketa zaleak taldeak antolatuta.

UZTAILAK 22, ZAPATUA

11:30 Salbea, Garagartzako elizan. Udaletxeik elizara arteko bidea Mendaroko txistulariekin egingo dute.

12:30 Txupinazoa eta Katasorgiñaren jaietsiera, udaletxeiko balkoitik. Bizi Poza txarangak girotuko du, eta ondoren, kalejira irtengo dira buruhandiekin.

13:00 2016an jaiotzen diren umeei ongietorria egingo die alkateak udal-txean, pleno aretoan.

13:00 Paella lehiaketa, frontoian. Izena emateko: Uztargi, Aitz Beltz eta Menditxon. Arroza, olio, oilaskoa eta gatza Udalak jarriko ditu.

14:30 Paella txapelketa amaituko da.

15:00 Herri bazkaria

17:30 Goitibeheren txapelketa, Azpilgoetan. Bizi Poza txarangak girotua.

22:00 Kuadrillen arteko playback lehiaketa eta sari banaketa

Ondoren Anestesia, Kraussk eta Ehun Kilo taldeen kontzertua.

UZTAILAK 23, DOMEKA

Adinekoen eguna

11:00 Kalejira Debako dultzaineroekin.

12:00 Meza nagusia Azpilgoetako elizan. Meza ostean, TxuTxu trenaren zain izango dute adinekoek frontoira eramateko. Han, Mendaroko Euskal Dantzak taldekoek urte amaierako saioa eskainiko dute.

14:30 Bazkaria, Aizpe elkartearen.

16:30 TxuTxu trenaren. Azpilgoetan hasiko du ibilaldia, eta lehenengo aldia omenduek lehenetara izango dute Aizpetik Herriko Enparantzara itzultzeko.

18:00 Alurr dantza taldearen ikuskizuna, Goñati pilotalekuan.

mendaro jaietan
2017



20:00 'A cal y canto' antzezlanaren, Mendarozabal auzoan. Santi Ugalde eta Gemma Martinez aktoreekin.

23:00 Energy orkestarekin dantzaldia.

UZTAILAK 24, ASTELEHENA

Haurren eguna

11:00 Gaztetxoaren pintura lehiaketa ikastolako jolastokian Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Gaia: Mendaroko jaiak.

11:00 Haurrentzako jolas atrakzioak ikastolako jolastokian. 11:00etatik 14:30era, eta 16:00etatik 19:00etara.

13:00 Mendaroko pilotari gaztetxoaren erakustaldia, frontoian.

18:00 Haurren danborrada, Bizi Poza txarangarekin. Antolatzailea: Arno guraso elkarteak.

Ondoren, 'Txapela buruan eta dantza munduan' ikuskizuna, Herriko Enparantzaren.

23:00 Huntza taldearen kontzertua.

Ondoren, DJ. Elepunto.

UZTAILAK 25 ASTEARTEA

Santixao Eguna

11:00 Kalejira, Debako erraldoi eta buruhandien konpartsa-rekin.

12:00 Meza nagusia. Garagartzako elizan.

13:00 Voces Riberas taldearen kantu emanaldia, frontoian.

17:00 Pilota jaialdia. Lehenengo, pilotari gaztetxoaren erakustaldia. Gero, Emakumeen Cup 2017 txapelketako partida: Ane eta Leire Etxaniz batetik, eta Jone eta Olatz Arrizabalaga bestetik. Bigarren partida: Olaizola I eta Uriondo bikotea Saralegi eta Beobiderraren kontra.

19:00 DJ. Zabba, Azpilgoetan.

22:30 Nagusien danborrada Elgoibarko Mausitxa txarangarekin. **Ondoren**, Akerbeltz taldearekin erromeria

UZTAILAK 26, EGUAZTENA

Santana Eguna

10:30 Prozesioa txistulariekin. Garagartzatik Santanara.

11:00 Meza nagusia. Santanako ermitan.

Ondoren, Erromeria eta bertso saioa: Astiazaran II eta Andonegi trikitilariarekin eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariarekin.

18:00 Herri kirolak: Gipuzkoako I. mailako aizkolari txapelketako finala. Julen Alberdi Zinkunegi, Iñaki Azurmendi Peñagarikano, Mikel Larrañaga Elgarresta, Ugaitz Mugertza Mendizabal, Xabier Orbegoza Agirragalde Arria V. Jose Mari Olasagasti omenduko dute.

19:30 Dantzaldia: Joselu anaiak

22:30 Katasorginaren igoera eta azken traka.

50

urteurrena

50 urte zuekin bidaiatzen

Ondo pasa santanetan!

Pol. Ind. Igartualdea, 27
20850 Mendaro - Tel. 949 741 677
www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



“Polita izan da berriro eszenatokira itzultzea”



Arg.: Begipuntuan

Hogei urteko etenaldiaren ostean, bueltan da Ehun Kilo taldea, baina itzulera ‘puntuala’ izango dela zehaztu du Jon Zabala taldeko abeslariak. Hatortxu Rock presoan aldeko jaialdiaren 20. urteurrena izan da taldearen itzuleraren aitzakia. Ehun Kilo desegin zen urte berean sortu zen Hatortxu Rock jaialdia, eta urte hartan ere saiatu ziren antolatzaileak Elgoibarko taldea jaialdira eramaten, baina orduan ezetz erantzun zuten. Hogei urte geroago, “ilusioz baina tentuz” hartu dute Hatortxu Rock jaialdiko antolatzaileen gonbidapena. Abestiak prestatzen hasi ziren, eta jendeurreko lehen entsegua Mutrikuko gaztetxean egin zuten ekainaren 18an. Santana jaietako Kuadrillen Egunean bigarren kontzertua emango dute.

- AINHOA ANDONEGI -

Jon Zabala EHUN KILO TALDEKO ABESLARIA

◆ **Hogei urteren ostean berriz taula gainera itzuli zarete. Nolatan?**

Hatortxu Rock jaialdian joteko gonbitea jaso genuenean hasi zen guztia. Argi esan genien lehenengo entseguak egingo genituela, gure burua nola ikusten genuen neurtzeko, eta horren arabera emango genielako erantzuna. Hilabete inguru jardun genuen entsegatzen, eta gero, antolatzaileak etorri ziren gu ikustera. Oso ondo ikusi gintuztela esan zuten, eta orduan baiezkotza eman genien. Arazo bat geneukan, baina: lau abesti bakarrik prestatu genituen. Hogei urtetan ezer egin gabe egon ostean, abestiak berriz ikasi behar genituen, gogoratu egin behar ginen nola egiten genuen. Azkenean prestatu genituen hamalau bat abesti, ordubete pasatxoko kontzertua emateko.

◆ **1997ko urriaren 11n eman zenuten azken kontzertua Elgoi-**

barko Gaztetxean. Ordutik zein harreman izan duzue musikarekin?

Gure artean lagun arteko harremana mantendu dugu urte hauetan zehar, baina sekula ez gara elkartu abestiak joteko. Ni musika eskolara joan nintzen denbora batez, musika pixkat ikasteko asmoz, garai hartan dena nire kabuz ikasi nuelako. Ez geneukan musika ikasketarik, gustatzen zitzaiguna kopiatzen genuen. Jon Iturrinok (gitarra-jolea) jarraitu du musikan Laumono taldearekin, baina beste guztiok erabat laga genuen musika. Nik neuk hogei urtean ez dut ezer abestu, eta ezatarria soltatzeko lana egin behar izan dut, eta Camilok (bateria-jolea) ere ahalegin handia egin du bateriaren erritmoa hartzeko. Gitarra jotea, azken batean, mekanikoagoa da, baina ahotsa eta bateriaren kasuan fisikoa ere sartzen da, eta bageneuzkan gure zalantzak. Baina

beno, tranpa txiki batzuk eginda, ez genuen gure burua horren gaizki ikusi.

♦ **Mutrikun egin zenuten ekainean jendaurreko lehen emanaldia. Entsegu bat izan behar zena, kontzertu bilakatu zen. Zer sentitu zenuten berriz taula gainera igotzean?**

Inguruan jende asko geneukan kontzertua eskatzen. Gure inguruko lagun asko ez dira Hatortxura joango, eta haiek ere ikusi nahi gintuzten. Gaztetxe txiki baten eta gehiegi iragarri gabe kontzertu bat ematea erabaki genuen, lagun artean. Baina azkenean eskuetatik joan zitzaigun. Mutrikuko Gaztetxekoei interesatzen zitzaien kontzertua iragartzea, eta azkenean aretoa bete egin zen. Kontzertu hasieran oso urduri geunden. Ni neu, kontzertua hasi baino ordu laurden lehenagora arte oso lasai nengoen, baina soinu frogak bukatu eta arropaz aldatzera joan ginenean sekulako urduritasuna sartu zitzaidan gorputzean. Lehenengo abestiak de-sastre joan ziren, baina berotu ginenean hobeto atera zitzaizkigun. Kontzertua itxuratu genuen.

♦ **Itxuratu baino gehiago esango nuke. Ikusleek 'beste bat' eskatzen bukatu zuten, baina gehiago ez zegoela esan zenuten.**

Horrela da eta! Hamalau abesti ikasi ditugu eta ez dakizkigu gehiago. Hatortxu jaialdian ordubeteko tartea daukagu, eta horixe prestatu dugu. Hasieran 45 bat minutu prestatzeko ahalegina egin genuen, eta behin hori lortu genuenean beste pare bat abesti gehitu genituen. Konturatu ginen ordubetera iristeko ez zitzaigula asko falta, eta animatu ginen beste pare bat abestirekin. Baina hor bukatzen da gure erreperorioa. Egia esanda, ez gaude gehiegi entsaiatzen ere, eta ez daukagu abesti gehiago prestatzeko astirik. Gabonen bueltan hasi ginen lanean. Hasieran gogor samar ekin genion, baina bakoitzak bere lana eta bizitza pertsonala ditugunez, ez da erraza entsegatzeko batzea. Astean pare bat aldiz elkartzeko ahalegina egiten dugu. Garai hartako lokal berean biltzen gara, Urazandin. Ateak itxi eta han ez da oxigenorik ere sartzen erreperorioak irauten duen ordubeteetan! Dena ematen dugu.

♦ **Orain dela hogeitau urte sortutako abesti berberak abesten dituzue. Letra haiekin identifikatzen al zarete oraindik?**

Batzuekin bai. *Janbo*, adibidez, gaur egungo egoerarekin bat dator, eta *Hara-gizko dianak* Jugoslaviako gudari buruz idatzi genuen, baina gaur egungo beste edozein gudari ondo egokitzen zaio. Baina beste abesti batzuekin ez gara horrenbeste identifikatzen, eta abesti bati letra aldatu diogu. Bere garaian ere ez zitzaidan gustatzen letra, neuk egin nuen arren, ez ninduen konbentzitzen. Doinua eta estribilloa mantendu ditugu, baina letra aldatu diogu. Abel Irizarrek lagundu digu letra egokitzen.

♦ **Adituek Su Ta Gar taldearen pare jarri zintuztetan. Bi disko kaleratu zenituzten eta gorenean zeundetela utzi zenuten. Zergatik?**

Musika guretzat zaletasuna zen, ez ginen profesionalki musikatik bizi, eta horrek nekea suposatzen du. Aste osoa lanean eman ondoren, asteburuetan kontzertuak eskaintzea han eta hemen, gogorra da. Errutina bilakatu zen, eta hasierako ilusioa neke bihurtu zen. Musikak ez zigun jaten ematen, eta ez genuen etorkizun argirik ikusten. Hasieran pozik joaten ginen kontzertuak ematera, baina gero eta astunagoa egiten zitzaigun. Su Ta Gar bezala profesionalki dedikatzen bazara posible da, baina bestela, *rock&roll*-ak ez du dirurik ematen.

♦ **Ilusio faltak desegin zuen taldea orain dela hogeitau urte. Orain, ordea, ilusioa nabari zaizue. Noiz arte izango dugu Ehun Kilo?**

Mendaron joko dugu jaietan, Hatortxun, sanbartolomeetan ere eskainiko dugu kontzertua, eta irailean besteren bat. Orain dela hogeitau urte ere esan genuen ez ginela itzuliko, eta begira non gauden. Norbaitek eskaintza on bat egiten badigu, auskalo, baina printzipioz itzulera puntuala izango da. Baina polita izan da berriro eszenatokira itzultzea.

♦ **Sanbartolomeetan etxean joko duzue. Zer suposatzen du horrek?**

Urrun ikusten dut oraindik eta ez naiz horretan pentsatzen jarri. Eguna bera iritsi arte ezin dut imaginatu. Baina espero dut jendea etortzea gu ikustera eta disfrutatzea. Mutrikun jendeak bikain erantzun zuen, eta Elgoibarren ere horrela portatzen badira ikusleak, gu pozik.

Camilo Fernandez (bateria), Jabi Bergara eta Jon Iturrino (gitarrak), Christian Etxabe (bajista) eta Jon Zabala (ahotsa) dira taldekideak.



**ANESTESIA.....****Uztailak 22, Kuadrillen eguna.****Herriko Enparantzan, 22:00etan hasiko da jaialdia.**

1988an sortu zuen Anestesia taldea Mikel Kazalisek, Estigia thrash taldeko baxu jotzaileak, bi musikari hasiberrekin: Dani Aizpurua (baxua) eta Imanol Beloki (bateria). Musika azkarra eta gordina egiten hasi ziren, eta laster hasi ziren kontzertuak ematen. Thrash-a eta hardcorea euskaraz lantzeko aurreiritziak apurtu eta doinu gogorrenei salaketa eta hitz kritikoak erantsi dizkiete, eta eredu izan dira eta dira talde askorentzat. Gaur egun, sei lagunek osatzen dute taldea. Mikel Kazalisek, bestalde, beste zenbait proiektutan parte hartzearekin bateragarri egin du Anestesiako jarduera (Negu Gorriak, 2 Kate, Kuraia, Matxura). Single bat, bi maketa, sei diska eta lau bilduma kaleratu dituzte.

KRAUSSK.....**Uztailak 22, Kuadrilla eguna.****Herriko Enparantzan.**

2009an Mutrikun sortutako metal talde gaztea da. 2010ean, UEK eta The Wet Band taldeekin batera, Bidean Tour izeneko bira egin zuten eta horren ondoren erruz hasi ziren kontzertuak ematen. 2011n kaleratu zuten lehen maketa, Jon Iturrinorekin, eta 2013ko otsailean, *Game over* abestia eta haren bideoklipa grabatu zituzten. Denboraldi bat itzaleko lanetan ibili ostean, 2014ko ekainean, estudioko lehen diska kaleratu zuten: *Gudaberria*. Bost lagunek osatzen dute taldea.

EHUN KILO.....**Uztailak 22, Kuadrillen eguna.****Herriko Enparantzan.**

90eko hamarkadaren erdialdean euskaraz abestutako heavy metalak urrezko aroa hasi zuen. Su ta Gar talde eibartarra izan zen aitzindaria, baina Ehun Kilo talde elgoibartarrak ere garai horretan hasi zuen ibilbidea. Musikan lehenago hasi baziren ere, 1991n sortu zuten taldea Jon Zabala (ahotsa), Jon Iturrino (gitarra), Jabi Bergara (gitarra), Kristian Etxabe (baxua) eta Kamilo Fernandezek (bateria). Bi diska kaleratu zituzten: *Euli artean* (1993) eta *Esaiek* (1995). 1997ko urrian banatu taldea.

ALURR DANTZA TALDEAREN IKUSKIZUNA.....**Uztailak 23, Adinekoen eguna. 18:00etan, frontoian**

Ibarrakoak dira eta 1995ean hasi zuten euren ibilbidea. Dantza tradizionala, klasikoa eta garaikidea uztartzen dituzte, eta euren erritmo eta jantziara eraman. Koreografo ospetsu eta dantzari gazteen ekarpen berritzaileak ere jasotzen dituzte, eta antzertokiko estetika izugarri zaintzen dute. Hainbat ikuskizun sortu dituzte: *Sua* (2008), *Oinazez* (2010), *Izanak Dirau*, 1512 (2012), *Soinaz* (2013) eta *Bi punturen artean* (2015). Mendaroren egonak dira aurrez.

'A CAL Y CANTO' ANTZEZLANA.....**Uztailak 23, Adinekoen eguna. Mendarozabalen, 20:00etan.**

Trapu Zaharrak konpainiak *A cal y canto* antzezlanaren ekarriko du. Javi Alonsok zuzendutako antzezlanaren da, eta Santi Ugalde eta Gemma Martinez dira aktoreak. 60 urte bueltako senarematzen papera beteko dute. 31 urteko semea dute, Koldo, sekula lanik egin ez duena, eta kalera irtengo dira egoera salatzeraz.

**IRIONDO**www.iriondo.com

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

ENERGY ORKESTRA.....**Uztailak 23, Adinekoen eguna.****Herriko Enparantzan, 23:00etan.**

Zaragozatik datoz, eta orkestra handia dira. 11 lagunek osatzen dute taldea, eta lau abeslari dituzte. 20.000 watiotako soinu eta 80.000 watio argi. 60ko hamarkadatik gaur arteko kantu ezagunenak jotzen dituzte.

'TXAPELA BURUAN ETA DANTZA MUNDUAN' IKUSKIZUNA.....**Uztailak 24, Umeen eguna.****Herriko Enparantzan, 19:00ak aldera.**

Parrandarako gogo zabaldu, jolaserako irudimena areagotu eta dantzatzeko grina sortzeko ikuskizun bizia da *Txapela buruan eta dantza munduan*. Eidabe konpainiaren obra da, Ugaitz Alegriak zuzendutakoa. Sei lagun dira taldean, eta publiko zabala-arentzako obra da. Herrialde eta estilo ezberdinetako dantzak ekarriko dituzte plazara.

HUNTZA.....**Uztailak 24, Umeen eguna.****Herriko Enparantzan, 23:00etan.**

Unibertsitate giroan elkartutako sei gazte gipuzkoarrek sortu zuten taldea, Bilbon. *Harro gaude* izan zen euren lehen kantua, oholtzarako bidea zabaldu ziena. 2016ko azaroan *Aldapan gora* kantuaren bideoklipa kaleratu zuten, eta arrakasta itzela izan zuten. Durangoko Azokarako *Ertzetatik* diska atera zuten, eta sekulako arrakasta izaten ari dira herriz herri.

VOCES RIBERA TALDEAREN EMANALDIA.....**Uztailak 25, Santio eguna. Frontoian, 13:00etan.**

Iruñeritik datoz eta sei lagunek osatzen dute taldea: Iñaki Reta gasteiztarra (ahotsa eta soinua), Diego Urmeneta castejondarra (ahotsa, gitarra eta soinua), Soraya Castellano tuterarra (ahotsa eta panderoa), Ainara Martinez castejondarra (ahotsa eta panderoa), Sandra Miranda tuterarra (ahotsa) eta Iñaki Martinez castejondarra (ahotsa). 2015eko santanetan egonak dira Mendaron.

AKERBELTZ.....**Uztailak 25, Santio eguna.****Herriko Enparantzan, 22:30etan.**

Talde gaztea da Akerbeltz, eta lau bat orduko ikuskizuna eskaini ohi du. Euskal musikako abesti ezagunenak jotzen dituzte, estilo desberdinetakoak: ska, punk, rock eta herri kantutegiko zenbait. Aurkezpen orrian diotenaren arabera, publiko gazteari zuzendutako ikuskizuna da eurena.

JOSELU ANAIK.....**Uztailak 26, Santana eguna.****Herriko Enparantzan, 19:30ean.**

40 urte daramate Euskal Herriko plazetan Javi, Andoni, Felix, Jesus eta Joselu Ruiz de Gordo anaiek. Ezagunak dira Euskal Herriko plazetan eta ia ez dute aurkezpenik ere behar. Mendarora sarri etorri dira. Euskara jakin ez arren taldea sortu zutenean, euskaraz abesten dute hasieratik.

Marian Belda
Euskoratura S.L.
688 692 318
Mendarozabal, 5 - MENDARO
NATUROPATIA ZENTROA - MASAJEAK
kol. zbk: 4044

TAXI
Kontxi Urain
MENDARO
Mobila:
607 575 728

Gazte Asanblada

"Gazte Asanbladako atea zabalik dago. Espazio librea da hau"



Irati Mendikute, Aitor Etxeberria, Nahikare Urain eta Nagore Urkiza. Argazkian Ane Rubio eta Iratxe Egaña falta dira.

Gazte Asanbladak botako du aurten jaietako hasiera emateko txupina. Gazte mugimenduaren loraldia bete-betean zenean sortu zen Mendaron ere Gazte Asanblada, 90eko hamarkada bukaeran, eta urte hobeak ezagutu baditu ere, sei bat laguneko taldeak eusten dio orduko gazteek hasitako bideari. Taldea handitzera deitu dituzte, baina, herritarrek.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Nola hartu duzue txupina botatzeko eskaintza?

Sekulako poza hartu genuen. Ilusioa egin zigun Gazte Asanbladarekin akordatuak, bereziki gure aurrekoek egin duten guztiagatik, baina aldi berean, egia da hau ez datorrela guretzako sa-soirik onenean. Urte zaila izan da, baina ia ba aitortza honek balio duen Gazte Asanbladan zeintzuk gauden ezagutarazteko eta jende berria erakartzeko, ahaleginak egin arren ez dugulako lortu taldea handitzea. Gazte Asanbladako atea zabalik dago, eta hori da nabarmendu nahiko gurek: espazio librea dela hau, herriko gazteena, baina gainerako guztiak ere zabalik gaituztela elkarlanean gauzak egiteko. Gustura hartuko ditugu proposamenak. Geuk ere badauzkagu ideiak eta luzea da egin nahiko gurek gauzen zerrenda, baina ideietan gelditzen zaizkigu, sei bakarrik gaudelako taldean eta zaila egiten zaigulako tira egitea.

Antolatzen dugu zer baita eta beti gaude norbait agertuko ote den kezkarekin.

◆ Eta zer gertatzen da ba?

Jakizu! Gaztelekukoek salto handia ikusten dute Gaztetxera eta gu baino zaharragoek ez dute euren burua hemen ikusten. Gazte Asanbladaren egungo egoerak ere izan dezake zeresanik honetan. Izan ere, egia da talde eragilea indartsu ikusten baduzu, errazago gerturatzen zarela, baina orain momentuan, gure bueltako askok ere marroitzat hartzen dute Gazte Asanbladan sartzea. Eta pena da, gure aurrekoek gogor borrokatu zutelako guk espazio hau izan genezan, eta orain, aukera dugunean geu antolatu eta geure intereseko ekintzak antolatzeko, zailtasunak ditugu. Jendea ez dago lanerako. Lokaletan ixten dira, eta akabo! Gu baino gazteago diren gazte askok kuadrilla ere Elgoibarren egiten dute orain, eta lokala ere han hartzen dute.

◆ Urteroko ekintzetan, baina, batzen da jendea.

Bai, hori bai, ekintza puntualetarako batzen dugu jendea, baina gehienak ez daude antolakuntzan aritzeko prest. Konpromisoa eskatzen duzu eta uxatzen dituzu denak! Aurten, esaterako, santanetako txosna bera ere kolokan egon da, baina eutsi diogu, ez zelako itxuragarri txupinazoa bota behar dugun urtean hori ere galtzea. Gazte guztiak nahi dute Gaztetxeko txosna jaietan, baina zer gertatuko litzateke kendu izan bagenu? Guretzat politena litzateke kuadrilla bakoitzeko gutxienez ordezkari bat egotea asanbladan, eta denon artean gauzak antolatzeko.

◆ Etsita sumatzen zaituztet, baina ia ba, zer mezu zabalduko dugu?

Bai, nahikoa apalduta gaude. Esan nahiko gurek da ohorea dela aurten jaiak geuk hastea eta animatu nahiko gurek geuk Gaztetxe bueltan ibili diren guztiak gurekin batera udaletxera igotzera.

Mendaroko Haurreskola

Garagartza, 5
943 755 219



Ondo pasa jaietan!

EGUNEKO ZENTROA ZUREKIN, S.L.



María Luisa Fernandez
Nuria Ansuategi
Fidel Ambrona

Azpilgoeta, 32
20850 Mendaro

Tel.: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net



LANDA ERRETEGIA

*Ondo pasatu
jaietan!!*



Garagartza, 32 · MENDARO
☎ 943 75 60 28



Mendaroko Udalak
santana zoriontsuak opa dizkizue.



“Urtean hiru egun gorriz markatuta ditut: Santa Ana, San Migel eta Txiki Eguna”

Fernando Loiola

Elgoibartarrentzat Txiki Eguna dena da mendarorarentzat Santa Ana eguna, jaietako egun handia. Kamiseta zuria eta zapi berdea jantzi eta herriko ume, gazte nahiz helduek elkarrekin igarotzen duten eguna. Talde horretan, baina, izaten da infiltratu bat: Fernando Loiola (Elgoibar, 1959), urte askoan Kilimoiko jokalaria izandakoa.

- AINARA ARGOITIA -

♦ Turroiak Gabonetan moduan, Fernando Loiolak ez du sekula hutsik egiten Santa Ana egunean.

Ez. Hogeitaz badira futbola laga nuela, eta hogeita hamar bat urtean izango nintzen ni hor, hutsik egin gabe. Osterantzean ere izaten naiz ni Mendaron, Trinitateetan-eta, baina Santa Ana eguneko giroa berezia da. Urtean hiru egun dauzkat nik gorriz markatuta, beti jai egiten ditudanak: Santa Ana, San Migel eta Txiki Eguna. Aurten ere, oker handirik ez, hantxe izango naiz.

♦ Eta beti paparrean Kilimoia armarridun kamisetarekin.

Bai, beti. Kamiseta hau eta zapi berdea urtean behin bakarrik jantzen ditut, Santa Ana egunez.

♦ Bakarrik agertzen zara, baina...

Bakar-bakarrik joaten naiz, bai. Mendarora joateko ez dut nik lagunik behar; kateatzen naiz ni han batarekin eta bestearekin. Hori dauka ona Mendarok. Bakarrik joanda ere, sekula ez zarela bakarrik egongo. Egun horretan kuadrilla denak na-

hasten dira; denak ibiltzen dira elkarrekin, nagusiak zein gazteak, eta sekulako giroa sortzen da. Mendaroren eguna da, eta kanpotik joandako banakok ere han ibiltzen gara, saltsan. Normalean, bertsolarien pare antzera iristen naiz ni Santa Ana ermitara. Han, meza entzun, ogitartekoa jan, bertsoak entzun eta orduan hasten da egunaren onena: tabernaz tabernako bertso poteoa. Aurten ez da Don Angel izango meza ematen, baina haren meza entzutekoa izaten zen. Zenbat aldiz egon ote naiz ni kronometroa eskuan hartuta, eta bertsotan denbora gehiago egiten zuten bertsolariek elizan Don Angelek meza ematen baino. Itzela zen.

♦ Norberak ere izango du zerbait, ondora horrenbeste lagun batzeko.

Urte asko egin nituen nik Kilimoian eta... Bihotzean daramat nik Kilimoia. Bizitzan egin dudana jairik handiena eta ederrena ere Kilimoiak mailaz igo eta Kopa irabazi zuenean egin nuen nik, Azpilgoetan. 1986-87 denboraldia zen. Bigarrenez, 91-

92 denboraldian igo ginen. Bi urteetan irabazi genuen Gipuzkoako Kopa, bata Ordizian, eta bestea, Urretxun. Orain, urterotero batzen gara.

♦ **Autopistan kamioia laga, hesiaren gainetik salto egin eta Ospas Gainera korrika entrenatzera. Egia izateko ere handitxo iruditu zait, baina...**

Hori baino gehiagorako ere gai gara ba gu!. Frantzian lan eginda berandu xamar nentorrenean izaten zen hori. Ospas partean lagatzen nuen kamioia, autopistan, eta saltaka gora, entrenatzera. Orduan Josebarik [Olazabal] ez zen izaten biolina jotzen. Joseba ere futboleko zebilen, Kilimoian.

♦ **Lekutan dago Ospas Gain!**

Neuri esan! Mendarora lehenengoz trenean joan nintzen ni, 1974an, entrenatzera. El-goibarren ibili nintzen infantiletan, baina jubeniletarako saltoa emateko orduan, baztertu ninduten, jakina, eta Aitor Etxeberria eskola-lagunak proposatu zidan Kilimoira joatea. Eta joan nintzen, trenez. Estaziora iritsi, eta estazioko buruak esan zidanean non gora joan behar nuen... Hura zen aldatza! Gaur, asko gaztek aldatz hura ikusiko balute, buelta erdi eman eta etxera!. Hortxe irabazten genuen guk. Kanpotik etortzen ziren autobusetan, baina autobusak behean lagatzen zituen eta ernegatuta etortzen ziren gora. Anekdotak hori eta Ospas Gain inauguratu zen eguna ez ditut ahaztuko. San Andres egunez inauguratu genuen Ospas Gain, Pasaiaren kontra. Paseotxoak egin genuen guk, jubenilok, margaritaz jositako zelai berde-berdean. Basastuta gehiagotan ikusi genuen, baina egun hartan halaxe zegoen. Eta zer? Aurreko batean joan nintzen ikustera eta han zebilen jendea, kotxe txikiek. Espainiako Txapelketa ei zen. Enee... han egin ditugunak eginda, ikusi egin behar orain hori ere, kotxeak bueltaka!

♦ **Esan zure ustez izan duzun dohairik handiena eta nik esango dizut zer esan didaten zutaz.**

Jajaja. Esan edozer mendaroarren. Buruz nintzen ni ona, eta taldekideak arrastoan sartzen ere bai. Eta, zer esan dizute ba zuri?

♦ **Teknikoki ez ei zinen nabarmentzen, baina futbol-zelaian**

Loiola entzun orduko dardarka hasten zirela aurkariak.

Jajaja. Aupada jotakoan, alde egiten zuten batzuek, bai, eta lehenengoan enkargua laga ezker, hurrengo gerturatu ere ez asko. Fama halakoxea neukan, ematekoa, baina nik jaso gehiago egin dut eman baino. Haginak nondik ateratzen dizkizute zuri? Ahotik, ezta? Ba neri burutik ere kendu zidaten behin letagin handi bat. Salto egin eta elkar jo genuen Gotzon Egaña eta biok, eta han laga zidan hark hagina buruan. Nik aldagelan esan nien zerbait sentitzen nuela, eta halako batean beste taldeko batek atera zidan, pintzekin. Nire kalterako, josi egin zidaten, eta direnak eta bi ikusi nituen hurrengo egunetan, zoldu egin zitzaizdalako burua. Bi aldiz zabaldu behar izan zidaten ebakia, garbitzeko. Esan nion Gotzoni ere: "Hi,

hurrengoan gitxienez garbitu itzak haginak, jesukristonak pasau jaituat-eta hire hagin putiak!" Ikusten? Taldekideek ere egurtu ninduten ni; atera kontuak! Beste behin, bekaina zabaldu zidan Luis Mendikutek. Ezkondu nintzen, astebete egin nuen ezkon-bidaian eta etorri nintzen, laneko kontu baterako, eta bitartean, partida bat jokatzerako Beti Gazteren kontra. Gehien nabarmendu zen jokakaria izan nintzen! Han bidali ninduten puntu pilarekin ezkonbidaira, beste astebeterako.

♦ **Mutil saiatua eta zaildua ei zinen, futboleko nahiz parrandan.**

Atzera ez naiz ni sekula gelditu!. Entrenatzaile Zubibarri zen garaian, bidaltzen gintuen Arnora saltaka, entrenatzera, eta taldeko batzuek, Luis Mendikute, Joseba Etxeberria eta beste "azkar" batzuk han ibiltzen ziren lasterbide bila. Guk ez; guk agindutakoa, bete. Zubibarri, bera, baina, han joaten zen kapot beltzeko Simca 1000 horian, kontrol lanak egitera. Ederra zen ba bera! Mendi-eta... aiii... Beste behin egin nuen sekulako jokaldia, iritsi naiz gora, erdiratu dut, eta jai! inor ez han! "Zerak sinistuko juan hik hori egin behar huenik". Halaxe esan zidan alfer kuadrilla hark!

♦ **Arriskua, baina, lasterbiderik hartu barik ere zu besteak baino aurretik iristeko, afari eta guzti.**

Hori ere bai. Behin, perretxiko pila bat topatu eta ekarri nituen

"Ospas partean lagatzen nuen kamioia, autopistan, eta saltaka gora, entrenatzera"

TELLABIDE
ITURGINTZA

Ondo pasa jaietan!

Berogailuak
Gasa
Aire egokituak
Erregai likidoak

Mendaron zain
Elgoibarren
ematen dugu
zerbitzua



Azpilgoeta 7 behea - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

S & P

KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA.
ERREMINTA MAKINA, BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialdia SE-5 • 20850 Mendara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 658 / 839 710 183 • Fax: 943 742 346
www.santosypatxi.com • comercial@santosypatxi.com



txandalean batuta. Zubibarri zain egongo zen, beharbada, baina Saintjeri [Antonio Saint Gerons] eman nizkion denak. Kilimoian historian bi pertsona egon dira nabarmendu beharrekoak, nire ustez. Elias Arriola eta Saintje. Beste batzuk ere izan dira, *Txitxo*-eta, baina aitorzaren bat merezi izatekotan horrek biek merezi dute. 1987an belauna txikitu nuenean ere, Saintjek eraman ninduen ni Iruñera, eta gaur arte ez dut nik duro bat ordaindu ebakuntza hargatik.

♦ **Arriskutsu xamarra izaten da Santa Ana eguna. Ez zaizu iruditzen?**

Zeharoko aldrebesa. Hasi han goian eta tabernaz tabernako poteo hori... Txakolinetara joateko eguna da, eta, jakina, kontuak izaten dira bi hankaren gainean ibiltzeko, taberna denetan jo ez kero behintzat. Ni tranpan ibiltzen naiz, batzuetan paso eginda. Baina ez da erraza izaten. Bi gauza zaindu behar dira Santa Ana egunean: txakolina eta bertsolariak norberari kantuan hastea nahi ez bada, beti atzealdean jartzea; sekula ez bista-bistan. Haiak han egoten dira begira-begira, zeini noiz adarra jo pentsatzen.

♦ **Bertsolarien ondorik-ondorik ikusten zaitut beti, baina isilik, harik eta profesionalak narrasten hasten diren arte. Orduan, bai, orduan mikrofonoa hartu eta hasten zara kantuan. Hori ere tranpa izango da ba, ala?**

Jajaja. Bertsotarako ere teknika tamainakoa daukat nik, baina jarduten naiz. Nik beti esaten dut bertsolari eskasa meioratu egiten dela 00:00etatik aurrera, eta bertsolari ona, eskastu. Ni lehenago ez nintzen kapaz bertso bat egiteko, baina Ziardarekin ibiltzen ginen asko gazte denboran, eta orduan lepo ibiltzen zen hura bertsotan, Bizkaia aldean. Botatzen zituen pare bat bertso eliza bueltan, gero beste dozena erdi bat inork kasurik egiten ez zion lekuan, eta sekulako bazkaria eginda etxeratzen ginen, jorنالarekin bera. Eta lehenago, bertsolari denek berdin kobratzen zuten! Eta neuk ere nahi. "Ez ba, nik kontra egingo dixat egunen baten!", esaten nion Ziardari. Azkenerako, bertsoa egiteko era ikasi nuen, eta egin! Kapazitatea tamainakoa daukat, baina hastea izaten da zailena. Txarrena bertsoa erdi eginda eramatea da.

♦ **Eta behin hasitakoan, zeinek isildu Loiola?**

Jakizu! Antzuolan, gaurkoz, futbol-partida egiten zen lehen, bertsolariak bertsozaleen kontra. Ilobaren ezkontzan hasi nintzen behin bertsotan, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasoren ondoan, eta Lizasok fitxatu ninduen euren talderako. Bera zen hautatzailea. Sekulako eguna izaten zen. Futbola eta bertsoa. Zer gehiago behar nuen nik ba? Futboleant egin, txikiteoa jo eta bazkaltzera.



Fernado Loiola Andoni Egañarekin bertsotan.

Eta gero denok bertsotan, Peñagarikano izan ezik. Hura egoskor jartzen zen han, eta besteak zirika hasi arren, bera isilik hantxe. Gero, futbol-zelai berria egin zuten Antzuolan, eta han amaitu zen dena.

♦ **Bota beharko diguzu txikiren bat hemen, ala?**

Hasi da, baina doinua ahaztu zaio. Bigarren ahaleginean, badoa.

Jaiak sarritan izaten dira
gustuko ta nahiko luze,
gustura asko ibili ezker
inola ezin da ase.
Mendaron ere Santa Ana eguna
niretzat bada zeozer,
mendaroarrei, jakin dezaten
esan nahi diet haxe:
Kilimoia ren kamiseta(re)kin
ni hantxe, beti bezalaxe. (bis)

♦ **Tarteka huts egiten dute bertsolariek eta kultur teknikariari esan beharko diogu halakotan ez hasteko kanpoan bila. Hor zaudela zu!**

Baita zera ere! Bertsolari onaren ondoan txarrak ere hobeto kantatzen du, baina ez, ez, nibela goian mantentzea komeni da.

♦ **Gazte artean ikusiko zaitugu aurten ere?**

Ni Arboletan eta Toki Alain ere egondakoa naiz urte askoan bazkaltzen, baina poteoa luzatzen hasi zenean konturatu nintzen onenean bazkaltzen hasten ginela gu, eta nire lekua beste bardoan zegoela. Orduetik, gazte artera batzen naiz bazkaritara. Beharbada hobeto emango nuke besteekin, baina saltsa gustatzen zaigu guri eta... Mikel Tarraguali esaten diot tiketa erosteko, eta esandako lekura joaten naiz ni, bertsolariekin, azkenekoarekin batera. Azkeneko urteotan herri-kirol saiotara ere ez naiz joan. Onenean frontoira? Ez, ez.



XUMUXUA
JATETXEAK

Tel. 943 756 166
Mendarozabal z/g, Mendaro



**Eguerdiko
menuak
12€tan**

**Zapatu eta
domeketan
14€tan**

AUTOZERBITZUA

ELKAR
COVIRAN



Kilimon Hiribidea, 5 behea - 20850 MENDARO
Tel.: 943 530 072 - Faxa: 943 530 073



Liburuak, loteria, tabakoak, opariak...

Tel.: 943 033 631
Faxa: 943 755 235
E-posta: morroskilloendenda@hotmail.com
Herriko Enparantza, 18
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

ONDO PASA JAIXETAN!



ASKETA S.L.
ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

ESKATU AURREKONTUA
KONTRAKOZIK GABE
943 19 19 52

Zure esku jartzen ditugu profesional onenak, konfiantza eta kalitatea eskainiz.
BERRITZE LANAK- PROIEKTUAK- INSTALAKUNTZAK- DISEINUA- AHOLKULARITZA



Pedro Muguruza, 5
20870 Elgoibar
asketa@asketa.net
www.asketa.net

Biltegia
Igartu industrialdea
Pab. NN 0-8-9
20850 Mendaro



Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 75 60 44
Faxa: 943 75 60 37
Mugikorra: 628 529 692
E-mail: pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**PAGOERROTA
ITURGINTZA**

- Iturgintza
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza
- Berogailuak
- Gasa

**Ondo pasa
jaixetan!**



m mendaro
ikastola

Kilimon, 2
Tel.: 943 756 141



**MENDARO
IKASTOLAKO
TXOKOLOREN
PARTEZ ONDO
PASA JAIXETAN!**

Trenak konpontzeko tailer automatizatu aurreratuenak aurkeztu du Danobatek

Danobatek erabat automatikoa den eta 28 minutuan behin merkantzia bagoi bat konpondu dezakeen soluzio digital bat diseinatu du, meatzaritzan liderra den Australiako BHP Billiton konpainiarentzat. DANOBATGROUP industri taldeak informazioaren eta komunikazioaren teknologien aplikazioan oinarritutako balio erantsi handiko sistemak garatzearen alde apustua egin du, eta apustu horretan kokatzen du Danobatek, industri talde horren kideak, garatutako tailerra. Proiektua 2013an hasi zen, eta 100 milioi euro baino gehiagoko zifra heldu da.

Garatu duten instalazioa Australiako Pilbara eskualdean dago, basamortu zonalde batean, hirigune hurbilenetik 1.700 kilometro baino gehiagora. Zonaldea ezaguna da 160 egun baino gehiagoan jarraian 38 graduko tenperatura gaitzen delako. Planetaren txoko babesgabe horretan muturrekoak dira baldintzak, baina, era berean, baliabide mineral ugari dago. Bertan du BHP Billiton enpresak mineral erauzketa leku bat, eta mineral horiek portuetako terminalak



garraiatzen diharduten trenak konpontzeko eta mantentze lanak egiteko diseinatu du Danobatek tailer digital erabat automatikoa.

Instalazioa gai da 28 minutuan behin bagoi bat konpontzeko, beraz, trenen mantentze lanak erabat automatizatuta egiteko munduan dagoen soluziorik aurreratuenak dela azpimarratu dute zuten Elgoibarren egin zuten aurkezpenean. Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Eusko Jaur-

lartzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak parte hartu dute ekitaldian.

Xabier Alzaga Danobateko zuzendari gerenteak honela esan zuen: "Bagoiak konpontzeko instalaziorik aurreratuenak da munduan, eta, kontrol sistema adimendunekin egin dugun lehen tren proiektua izan ez bada ere, fabrikazio digitalaren paradigma berrirako behin betiko trantsizioa izan da guretzat".

Gure Balioak sarirako hautagaiak aurkezteko epea hilaren 16an bukatuko da

Debabarrenean pertsona edo entitate batek bere ibilbidean zehar sustatu dituen giza balioei aitortza egiteko sortu zuen Debegesak Gure Balioak Saria. Aurten, zortzigarren urtez egingo dute, eta antolatzaileek jakinarazi dute uztailearen 16an amaituko dela hautagaiak proposatzeko epea. Sariaren xehetasun guztiak, oinarriak eta hautagaia aurkezteko bete beharreko orria www.debegesa.eus webgunean eskuratu behar da. Orria bete ondoren, baliok@debegesa.eus helbidera bidali behar da. Sari banaketa Mendaron egingo dute urrian. Iaz, Nerea del Campo Aguirre eibartarrak jaso zuen saria, baina saria jaso dutenen artean hainbat elgoibartar ere badadue. Sabin Osoro Unzuetak jaso zuen, esaterako, 2014an, Jesus Bilbao Azpirik, 2012an, eta Gemma Agirregomezkortak jaso zuen haien aurretik, 2011n.

Meza egongo da Maalako elizan hilaren 22an

Uztailearen 22an Magdalena Eguna dela eta, meza berezia eskainiko dute Maalako elizan. 12:00etan izango da.

San Pedro jaietako errifako zenbaki sarituak

Domekan bukatu ziren Idotorbeko San Pedro jaiak, eta antolatzaileek egin dute errifaren zozketa. Hauek izan dira zenbaki sarituak: Orgaitila: 4577 (ordezkoa, 4557). Nekatur saria: aldiz, 1416 (ordezkoa, 1409).

Herriko emakumeen bilkura egingo dute Mendaron, hilaren 21ean

Santana jaien atarian, herriko emakumeen bilkura egingo dute Mendaroko frontoian, hilaren 21ean, 21:00etatik aurrera. Eskuzabaltasunez eta borondatez ospakizunak antolatu izan dituzten emakumeen omenez bilduko dira, erakusteko gaur egungo emakumeek ere badutela jaiak ospatzeko modu propioa; inklusiboa eta elkarlanean oinarritutakoa. Herriko emakume guztiak gonbidatuta daude. Bakoitzak nahi duena eraman dezake: janaria, edaria, musika, poesia... Elkarrekin gozatzeko gogoia eramatea nahikoa dela aurreratu dute deitzaileek. Bilkura bera antolatzeko ere deia egin dute astelehenerako. Frontoian bilduko dira, 19:30ean.

Lan poltsa osatzeko deialdia ireki du Debabe Udal Euskaltegiak

Lanaldi partzialerako euskarako bi irakasle kontratatuko ditu aldi baterako DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitateak, eta bide batez, lan-poltsa osatuko dute azterketa gainditzen duten hautagaiekin. Oinarriak 2017ko uztailaren 12an argitaratu dira GAO-n (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala). Eskara-orria aurkezteko azken eguna uztailaren 21a izango da, eguerdiko 14:00etan. Interesatuak ondorengo helbidean kontsultatu ditzakete deialdirako oinarriak: <https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2017/07/12/e1704996.htm>

Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko ibilaldi gidatua antolatu dute domekarako

Debegesak antolatuta, Karakate eta Hirukurutzeta arteko Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko ibilaldi gidatua egingo dute domekan, euskaraz. 10:00etan ekingo zaio ibilbideari Karakateko aparkalekutik, eta eguerdiko 13:30rako amaitzea aurreikusten dute. Jantzi erosak eta mendiko oinetakoak eramatea gomendatu dute arduradunek. Txangoa amaitzean, mokadutxo egingo dute gazta, ogia eta sagardoarekin. Interesatuak 657 79 46 77 telefonora deituz (Naiara) edo info@begi-bistan.com helbidera idatzita eman dezakete izena. Uztailaren 30ean beste saio bat egingo dute, gazteleraz.

San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten etxeko txikienek joan zen barixakuan Elgoibarren eta Mendaron



San Fermin Eguna izan zen joan zen barixakuan, eta Elgoibarko eta Mendaroko txikiak San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten. Bi herrietako udaletxeetako balkoietatik bota zituzten txupinazoak lehenengo, eta ondoren, pregoia irakurri zuten. Horren ostean, Iruñeko entzierroen antzera, zuri-gorritz jantzita egin zuten korrika umeek zezenen aurretik. Elgoibarko Izarraren aisialdi eskaintzaren barruan ospatu zuten San Fermin Txiki Eguna bi herrietan. Ekitaldiko bideoa ikusteko: www.barren.eus



“Burua ere entrenatu daiteke ultra lasterketetan emaitza hobekak lortzeko”

▶ GORKA DE LA HORRA MENDI LASTERKARIA

Gorka De La Horra Irastorza (Elgoibar, 1975) orain dela hiru urte hasi zen mendiko lasterketetan parte hartzen, hainbat urtean txirindularitzan aritu eta gero. Urteik urtera emaitza hobekak lortzen ari da eta lasterketetako podiumak zapaltzen ere hasi da, azkena Goierriko Bi Handiak proban. Hirugarren egin zuen 88 kilometroko ultra lasterketan (10:53:54). Ehunmilak, G2H eta Marimuru-mendi probetan parte hartu zuten elgoibartarren eta mendararren emaitzak barren.eus-en dituzue.

- ASIER ORBEA -

♦ Hirugarren egin zenuen Goierriko Bi Handiak mendi lasterketan. Nola bizi izan zenuen?

Oso pozik nago lortutako emaitzarekin. Ander Zulaikarekin hasi nuen proba eta oso ondo konpondu ginen elkarrekin. Erritmo politean joan ginen. Ai zkorri behera, baina, aurrera egin zuen Anderrek, ni baino teknika hobea duelako eta hobeto moldatzen delako jaitsieretan. Azken kilometroetan indartsu sentitu nintzen eta jendea aurreratzen hasi nintzen. Anderren pareraino ailegatu nintzenez biok elkarrekin amaitu genezakeela esan nion. Erantzun zidan zeramana baino erritmo biziagoan ezin zuela joan, eta emateko 'egurra' nik, hirugarren postua eskura nuela-eta. Halaxe egin nuen, eta sekulako poza eman zidan helmugan hirugarren sartzeak, nire hasierako helburua lehen hamarren artean egotea baitzen. Ander nire atzetik sartzen ikustea ere berezia izan zen, ospatzeko aukera eman baitzigun. Atzetik aurrera eginez amaitzen duzunean gainera, sentsazio gozoagoak lagatzen dizkizu probak eta oroi-menean ere hala gelditzen da.

♦ Probako zatirik handiena gabez egiten duzue, ilunetan.

Bai hala da, barixaku gauean, 23:00etan, irteten baikara Beasaindik eta zapatuan, 9:00ak alderako, ailegatu zen lehena Beasaingo helmugara. Ilunetan joatea ez da erraza eta aurten gainera behelaino itxia izan genuen kilometro askotan. Apenas ikusten genuen metro bat aurrerago geneukana. Beste zati batzuetan, berriz, zerua oskarbi eta hego haizea izan genituen. 88 kilometroko ibilbidean asko aldatzen dira baldintzak eta eguraldia, leku batetik bestera.

♦ Proba honetan parte hartzen zenuen bigarren aldia zen, ezta?

Bai, orain dela bi urte ere egin nuen. Hamazazpigarren postuan sailkatu nintzen orduan, 12 ordu eta 9 minutu eginda. Ordu bete eta laurden gutxiago behar izan ditut oraingoan. Orduan ere lagun dezente aurreratu nituen azken hamar kilometroetan. Nire lagun Loren Gaeanak esan zidan berriz saiatu beharko nukeela, askoz hobeto egin nezakeela-eta. Kasu egin nion.

◆ Mendi lasterketa batean lortu duzun emaitzarik onena da?

Gasteizko Mendiak proban bigarren egin dut aurten eta Chivan (Valentzia, Espainia) jokotutako beste lasterketa batean ere lortu nuen podiumera igotzea, baina G2H maila bat gorago dagoela uste dut, bai daukan oihartzunagatik eta bai parte hartzaileen mailagatik.

◆ Denboraldiko zure helburu nagusia zen?

Hasiera batean ala bazen ere, Zegama Aizkorri maratoia egiteko aukera sortu zitzaidan urtarrilean, lagun baten bidez parte hartzeko dortsala eskuratu bainuen. Ondo entrenatuta joan nintzen arren, lehenengo aldia nuenez, garrantzitsuena erritmo jarraitua mantentzeko burua hotz mantentzea izan zen. Horrenbeste ikusle eta animo artean erraza baita daukazuna baino gehiago ematea, eta garesti ordaindu daiteke gehiegizko esfortzu hori. Lortu nuen nire helburua betetzea, eta esperientzia aparta izan zen.

◆ Nola prestatzen da 88 kilometroko lasterketa bat. Zer da zuretzat zailena?

Irteerara lesiorik gabe ailegatzea da lehen erronka nagusia. Ultrak prestatzeko entrenamenduetan kilometro asko egin behar dira eta ordu asko sartu. Txirrindularitzarekin uztartzen ditut nik mendiko entrenamenduak. Aurten, gainera, entrenatzaile batekin hasi naiz, eta igarri dut aldea. Lehen eta orain entrenamendu bolumen bera egiten dudan arren, kalitate handiagoko entrenamenduak egiten ditut orain eta intentsitatea neurtuagoa dago entrenatzaileari esker. Horrelako proba luzeetan jan-edana zaintzea ere funtsezkoa da, baina guztiaren gainetik lasterketa luzeetan buruak eragin handia du. Izugarria. Burua ere entrenatu daiteke momentu txarrei alde ona bistartzeko; gauzak ikuspegi positibotik begiratu behar dira, eta pentsamendu ezkorrak baztertu. Jarrera positibo hori norbere buruari jarritako erronka txiki eta jolasekin uztartu behar da. Hamarga-

“Irteerara lesiorik gabe ailegatzea da lehen erronka mendiko lasterketetan”



Gorka De La Horra helmugan sartzen.

Gorka De La Horra, Javi Dominguez eta Maddi Mujika.



rren kilometroan sentsazioak ez badira espero genituenak ez da pentsatu behar beste laurogei kilometro falta zaizkigunik, hobe da honela pentsatzea: hemendik hurrengo puntura arte Karakatetik Irukerutzetara joatea modukoa da.

◆ Noiz hasi zinen mendi lasterketetan parte hartzen?

Bizikleta mundutik nator. Quebrantahusos proba zortzi aldiz egin daukat, baina aspertzen hasita nengoen, eta tropel handietan sortzen den tentsioa ere ez dut oso gogoko. Ez naiz eroso sentitzen. Hala, lagun batek animatuta, Hiru Handiak proban parte hartu nuen orain dela hiru urte.

Nire lehen esperientzia izan zen mendiko lasterketetan. Gustatu zitzaidan, eta hemen jarraitzen dut.

◆ Gero eta lagun gehiagok parte hartzen duzue mendi lasterketetan. G2H proban ere ia 30 elgoibartar batu zarete.

Bai, neu ere harritu egin nintzen hainbeste elgoibartarrek izena eman genuela ikustean. Eta hori ohikoak diren laupabost lasterkarik parte hartu ez dutela aurten. Bistan da mendi lasterketen loraldia bizi dugula. Lasterketetan izena emateko dauden arazoak ikusi besterik ez dago. Goierriko Bi Handietan, esaterako, hiru egunetan amaitu ziren dortsalak.

◆ Zein probari diozu begia jota?

Egiten ditudan probak ondo aukeratzea gustatzen zait, eta probatik probara atseden hartzea. Artikulazioek, belaunek batik bat, nahikoa sufritzen dute entrenamenduetan, eta are gehiago, probetan. Aurten Zegama Aizkorri egin ostean, Gasteizko Mendiak egin nuen, Hiru Handiak proban parte hartzeko sailkapena lortu daitekeelako bertan, antolatzailea bera baitute. Urrian Gorbeia Suzien proban parte hartu nahi dut.

◆ Bada gogoko duzun proba berezirik?

Hemen bertan daukagun Kilimon Trail asko gustatzen zait. Aurten ezin izan nuen parte hartu lepauztaia apurtuta nuelako, baina oso gustura korritzen dudan proba da.

Haundik eta Realak lagunarteko partida jokatuko dute bihar Mintxetan



CD. Elgoibarren mendeurrena ospatzeko ekintzen barruan jokatuko dute lagunarteko partida Haundik eta Realak, zapatuan, Mintxetan (18:00). C.D. Elgoibarrek klubeko presidente izan diren lagunak omentzeko ekitaldia ere prestatu du. Realak San Fermin egunean hasi zituen denboraldiko entrenamenduak eta zapatuan Elgoibarren jokatuko duten partida izango dute udako aurreneko lagunartekoa. Gipuzkoako herri bat aukeratzen dute urtero lehen partida hori jokatzeko eta Elgoibar aukeratu dute aurten, C.D. Elgoibarren mendeurrenako ospakizunekin bat eginez. Txuri-urdinek aukera izango dute lehiatzen hasi eta sasoa hartzen joateko, abuztuaren erdialdean hasiko baita liga txapelketa. Aurten, gainera, European ere lehiatuko dira. Elgoibar eta Realaren arteko partida ikusteko sarrerak 12 euroan salduko dituzte. Erretiratuek eta gazteek (16-20 urte) 6 euro ordaindu beharko dituzte, eta 16 urtetik beherakoek bi euro. C.D. Elgoibarreko bazkideek ez dute sarrerarik ordainduko.

Aitor Larrañaga izan zen azkarrena Javier Ezenarro Oroitzarrean



Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, X. Javier Ezenarro Oroitzarrean jokatu zuten Mendaron, zapatuan, junior mailako txirrindulari lasterketa. Amaiera estua izan zuen probak eta Aitor Larrañaga (Victor Alvarez Construcciones) txirrindularia gailendu zen esprintean. Donostian bizi den Jexux Larrañaga mendaroarraren semea da Aitor, Donosti Berri Txirrindulari eskolako kidea. Elgoibarko Ciclos Iturriaga taldeko Ion Ibarluzeak bosgarren postua eskuratu zuen lasterketa aparta egin eta gero. Proba amaitu zuten 64 txirrindulariek bi aldiz Osintxuraino joan eta birritan igo zuten Kalbarioko gaina, 80 kilometro inguruko ibilbidea osatuz.

Azkarateko Igoerarik ez da egingo aurten

Maalako jaiak antolatzeko zailtasunak dituzte antolatzaileek eta Elgoibarko Maala Azkarate Igoeraren zazpigarren edizioarik ez dutela egingo jakinarazi dute. Maalako jai batzordeak antolatzen du Azkarateko igoera herrikoia, Mintxeta Atletismo Taldearen eta Gure-Bide txirrindularitza elkartearen laguntzarekin. 2011n egin zuten estreinakoz, David Slater ingelesak 1981. urtean ezarri zuen marka (20:40) gogoan. Slater bera etorri zen Elgoibarrera proba jarraitzera, eta berriro itzuli zen iaz, bere seme Jamesek probaren inguruan eginiko dokumentala, *El Ingles* izenekoa, aurkeztera.



Hirugarren postua elgoibartarrentzat Xake partida azkarren txapelketan

Lau xakelariz osatutako hamalau taldek parte hartu zuten Elgoibarko Xake Partida Azkarren Txapelketan, uztailearen 8an. Maalako parkean jokatu zituzten partidak eta jokalaririk bakoitzak bost minutu izan zituen partida osorako. Abadiño Xake Taldea gailendu zen, eta Santurtzikoa sailkatu zen bigarren postuan. Elgoibarko A taldea hirugarren postuan sailkatu zen, eta bederatzigarrengoa B taldea.



'Memoriaren ganbaratik' dokumentala emango dute gaur aire libreko zinean



3 óko gerraren errekreazioa egin zuten iazko irailean Taupadak eta Elgoibar 1936 taldeek antolatuta Elgoibarko kaleetan. Milizianoen gaua eta tropa faxistak Elgoibarren sartu zirenekoaren errekreazioa egin zuten, eta egun hartako irudiekin *Memoriaren ganbaratik* dokumentala osatu zuten ondoren. Gaur gauean aire libreko zinean eskainiko dute dokumentala, Kalegoen plazan, 22:30etik aurrera. Emanaldiaren ostean, Jai Alai tabernan DVDak erosteko aukera izango da, 10 euroan.

Ana Salegiren kartelak irekiko du San Bartolome jaietako egitaraua

Ana Salegik irabazi du San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketara. Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, hamalau lan aurkeztu dituzte 2017ko San Bartolome Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketara. Horien artean, Ana Salegi Egañak aurkeztutako *Ongi etorri* izeneko azala saritu du lehiaketako epaimahaiak. 700 euroko saria jasoko du Salegik.



Haurrentzako lehiaketa ere antolatu du Udalak eta hamalau lan aurkeztu dituzte. Honakoak izan dira sarituek: Aritz Vallejo Caballero (12 urte), Irati Uzkudun Cabezudo (12 urte), Eneko Etxaniz Iureta (10 urte), Elaia Etxaniz Iureta (8 urte), Oihan Goñi Orozko (8 urte), eta Leire Etxaniz Bereziartua (5 urte). Sari banaketa abuztuaren 22an izango da, 19:30ean, Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

'Supituki' antzerki inprobisatua gaur gauean, Mendaron



Inprobisazioan oinarritutako *Supituki* antzezlanaren taularatuko du gaur gauean Inpro taldeak, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Publikoa ere emanaldiaren parte aktiboa da, izan ere, ikusleek txartel batzuetan idatzitako esaldiak izango baitira aktoreek sortuko dituzten eszenen abiapuntuak. Lau aktore arituko dira jolas desberdinen bidez inprobisatzen. Antzezlan originala eta dibertigarria da. 22:00etan hasiko da ikuskizuna, eta doan izango da.

Euskalgintza eta feminismoa eskutik helduta, urrian

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak euskalgintza eta feminismoa uztartuko dituzten hainbat ekitaldi antolatu dituzte urriko ziklorako. Euskalgintza eta feminismoa izango dira zikloaren osagai nagusiak, eta, besteak beste, bien arteko harremanak, sinergiak, kezkek edo erronkak aztertuko dituzte. Finean, bi mugimenduak batera eta eskutik helduta plazaratzeko saiakera egingo dute arduradunek. Horretarako, hainbat hitzaldi, elkarrizketa, bertso literario saiok eta rap ibiltaria prestatu dituzte, besteak beste.

Urriko zikloa Gotzon Garate idazle eta euskaltzale zenaren oroimenez antolatzen dute, eta aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da.

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna moduan ere bai. ☎ 682 798 874

Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 656 688 578

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin, astelehentik ostiralera. ☎ 602 625 718

Adinekoak zaindu eta etxeko edo portaleko garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 638 338 816

Pertsona nagusiak nahiz gaixoak zainduko nituzke. ☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka. Gauetz ere bai. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.

☎ 602 893 569

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka. Gauetz ere bai. Garbiketa lanak ere egingo nituzke.

☎ 667 301 325

Elkarteak garbitzeko prest nago. Asteburuetan. ☎ 626 435 491 (Ildoia)

Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 635 005 536

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskaraz dakit.

☎ 662 401 585

Eskaintzak

Mahats ardoteagian lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎ 646 936 092

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska bat behar da lehenbailehen. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: cvdenda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren, ahal dela, erdigunean. Altzariekina edo altzari gabe. ☎ 626 329 979

Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 602 625 718

BESTELAKOAK.....

Aukera! Bizikleta estatikoa salgai. Egoera onean. 120 euro.

☎ 659 986 943

OSPAKIZUNAK.....

1972koen bazkaria urriaren 7an. 13:00etan, argazkia Bolatokian. Segidan Luntxa Usuan, eta 14:30ean bazkaria+DJ Sigma Jatetxean. 60 euro sartu behar dira irailaren 29rako ondorengo kontu korrontean: ES40-3035-0007-26-0071134189 (Laboral Kutxa).

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu.

Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua).

22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua).

20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren
Enpresen Kontseilua



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Lau komunitatetan bereizitako urbanizazio batean (garajeen komunitatea bat, eta hiru peora) lokal bat dago, zeina bere garaian jabeek banatzea erabaki zuten. Lokal zati batean gelditu ziren argiaren eta uraren instalazioak, eta komunitateko zentralizazio kontagailu-kutxatik hartzen ditu argia eta ura. Beste lokal zatian, baina, ez daude instalazio horiek eginda, eta hor, behin-behinean, aurreko lokaletik hartzen dute argindarra eta ura. Baina, orain, instalazio propioa jarri nahi du. Kontua da kable eta instalazioak pasatzeko eroapen edo kondukzioak ez direla kabitzen ondoko lokalean, eta ondorioz aukera bakarra duela: kable horiek garajeen komunitatetik pasatzea. Baina, garaje-jabeak ez daude konforme. Eskubidea du bere hodiak garajera ura eta argindarra sartzen diren hodietatik sartzeko?

Jabe horrek eskubidea dauka gainerako jabeen baldintza berdinetan jasotzeko hornidura hori. Horrek eskatzen du behar diren instalazioetarako bide-zor bat sortzea. Aztertu beharko litzatekeena da nondik pasatu behar den instalazio hori. Egokiena garajeetatik egitea bada, komunitate horrek aukera eman beharko dio horretarako, baina garajeetako komunitateak aukera izango du epaitegira jo eta aukera bakarra hori dela egiaztatzea eskatzeko.


AHOLKUA: Bide-zor hori ahalik eta kalte gutxien eragiten duen lekutik pasatu beharko da, baina ondo justifikatu beharko da beharrezkoa dela eta leku horretatik egitea dela modurik onena.




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel!** Laster 7 urte! Asko maite zaitugu. Muxu handi bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Unax,** zure 3. urtebetezearan. Aita eta amaren partez.



Zorionak, **Paul,** hilaren 18an 7 urte beteko dituzulako. Muxu bat amama-aitiittaren eta lideren partez.



Zorionak, **Naiara,** abuztuaren 17an 7 urte egingo dituzulako. Ondo-ondo pasa! Muxu pila, denon partez.




Zorionak, **Esti-txu,** uztailearen 28an 8 urte egingo dituzulako. Asko maite zaitugu, bihotza. Familiakoak.



Zorionak, **Danel,** igandean 3 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiakoan partez.



Zorionak, **Irati,** atzo 6 urte bete zenituzulako. Patxo haundi-haundi bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Kaiet,** hilaren 22an 6 urte beteko dituzulako. Ederki ospatuko dugu. Maite zaitugun guztion partez.



Zorionak, **Cristian** ostegunean zure eguna delako. 34 urte! Muxu asko familiakoan partez.



Zorionak, **Unai,** 8 urte bete dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Nagore, June eta Luaren partez.



Zorionak, **June,** hilaren 21ean 9 urte beteko dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Nagore, Unai eta Luaren partez.



Zorionak, **Maria,** hilaren 20an 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familia osoaren partez.




Zorionak, **Jon,** zure 4. urtebetezearan. Ondo pasa, txapeldun, eta muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Lier,** asteazkenean 7 urte beteko dituzulako. Familiakoan partez, ondo pasa zure egunean.



Zein azkar pasatzen den denbora! 9 urte! Zorionak, **Mar-kel,** etxekoan, eta bereziki, Luciarren partez.



Zorionak, **Miket,** hilaren 23an 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasa! Etxekoan partez.




Zorionak, **Nora eta Laia,** uztailearen 25ean eta abuztuaren 5ean, 5 urte eta urte bat beteko dituzuelako. Muxu asko!



Zorionak, **bikote!** Iritsi da zuen egun handia! Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Muxu bat kuadrillakoan partez.




Zorionak, **prexioiak!** Uztailearen 26an 6 eta 14 urte! Patxo handi bana.




Zorionak, **Julen eta Anto!** Bihar oso ondo pasatuko dugu. Muxu asko familiakoan partez.




Zorionak, **Irene,** igandean 7 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez, muxu handi bat.




Zorionak, **Axi,** zure 8. urtebetezearan.




Zorionak **Eneko eta Aner!!** Dagoeneko, 9 urte!! Ondo ospatu eta segi horren jator. Muxu erraldoi bana!



Zorionak, **Uxue eta Unai,** atzo 5 urte egin zenituztelako. Oso ondo pasa genuen. Muxuak, familiakoan partez.



Zorionak, **bikote!** Gozatu zuen egunean, guk ere hala egingo dugu eta! Berekada handi bat kuadrillakoan partez.



Zorionak, **Terese eta Paul,** uztailearen 7 eta 4 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bana etxekoan, eta bereziki, Andrearen partez.



Zorionak, **Luken,** uztailearen 31n 9 urte egingo dituzulako. Segi horrela! Etxekoan, eta bereziki Alaineren partez.

RFB 180/12

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

EGUZKITAKO BETAURREKOETAN AUKERA ZABALA.

19€ gehiagogatik **GRADUATU ITZAZU!**

* KONTULTATU BALDINTZAK

14 BARIXAKUA

18:30 Odol ateratzeak. Odol Emaleen Elkarteko en lokalean.

18:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan.

19:30 Sanloren urteko batzar nagusia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 'Supituki' antzerki inprobisatua, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Doan.

15 ZAPATUA

18:00 C.D. Elgoibarreko presidente ohiei omenaldia. C.D. Elgoibar eta Real Sociedad taldeen arteko partida, Mintetan.

16 DOMEKA

10:30 Dolmenen Ibilbidea. Izena emateko, Debegesara deitu (943 820 110).

21 BARIXAKUA

22:30 Nazioarteko Folklore Jaialdia. Indiako Rang Sagar, Chuvashiako kantu eta dantzako Estatu Taldea eta Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldea. Maalako parkean.

31 ASTELEHENA

19:00 Dantzaldia, Eguren orkestrarekin. Maalako parkean.

SARGOATEKO ERROMERIA Uztailak 23

11:00 Meza.

Ondoren, salda eta txorizoa banatzea.

Segidan, bertsolariak.

Jarraian, artzai txakur erakustaldia, antzarekin.

SANTUMOTZ EGUNA Abuztuak 6

6 DOMEKA

11:00 Meza. Santumotzeko zelaian.

Gero, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

12:00 Goiko-Etxe auzoko harrijasotzailea eta Jon Gisasola 'Zelai II'.

Segidan, Mendiluze eta Peñagarikano bertsolariak.

Tartean, Ostolaza eta Astiazaran II soinujo-leak.

14:30 Bazkaria. San Pedro jatetxean (30 euro). Izen-ematea: 943 740 010.

SALLOBENTE-ERMUARANGO JAIAK

Abuztuak 4, 5, 6, 10

4 BARIXAKUA

19:00 Kanpai jotzea eta suziriak, jaien hasiera iragartzeko.

Ondoren, errosarioa eta meza. Auzoko hildakoen alde.

20:00 Bakailao jana, bereziki auzoko aiton-amonei eskainia.

23:00 Bolo saioak.

23:30 Erromeria, Mugi Panderoa taldearekin.

5 ZAPATUA

16:30 Haurrentzako jolasak, soinu jotzaileek girotuta.

Ondoren, Ekain Txou ikuskizuna.

Jarraian, txokolate jana.

Segidan, zezentxo eta pottokak.

20:00 Emakumezkoen bolo txapelketa.

23:30 DJ festa, Oihan Vegarekin.

1:00 Bolo txapelketa.

* Maalatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da, 19:00etatik aurrera.

6 DOMEKA

10:30 Jaieroko elizkizuna.

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

10 EGUENA

San Lorentzo Eguna

11:00 Meza nagusia. Haritz Dantza Taldearen aureskua, musikari eta bertsolariekin.

Ondoren, salda eta txorizoa.

AZKUEKO JAIAK

Abuztuak 15, 16, 17

15 MARTITZENA

San Roke bezpera

17:00 Kanpai jotzea eta suziriak.

18:30 Errosario santua. Auzoko ermitan.

22:00 Bolo jaurtiketa.

Bazkariak eta afariak emango dituzte karpan eta elkartean.

16 EGUAZTENA

San Roke Eguna

9:00 Suziriak.

11:00 Meza nagusia eta Haritz dantza taldearen erakustaldia. Auzoko ermitan.

Ondoren, orga jasotze txapelketa, ez profesionalentzat.

18:00 Idi dema erakustaldia Urretxuko Ipiñarieta eta Oromiñoko Tabernakuaren artean.

Segidan, Zezentxoak eta pottokak.

22:30 Erromeria, goizaldera arte. Laja eta Larrañagarekin.

00:00 Bolo txapelketa.

17 EGUENA

San Roke Txiki Eguna

9:00 Suziriak.

11:00 Meza. Auzoko hildakoen alde.

13:00 Txapel jaurtiketa.

14:00 Bazkaria, Baltzola anaiak girotuta.

18:00 Haurrentzako jolasak.

Ondoren, txokolate jana.

Segidan, Zezentxo eta pottokak.

22:30 Erromeria. Baltzola anaiak.

01:00 Errifaren zozketa.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK 09:00 - 22:00

UZTAILA

- 14 Barixakua YUDEGO
- 15 Zapatua ORUESAGASTI
Goizez, ETXEBERRIA
- 16 Domeka ORUESAGASTI
- 17 Astelehena BARRENETXEA
- 18 Martitzena IBAÑEZ
- 19 Eguaztena GARITAONANDIA
- 20 Eguena ORUESAGASTI
- 21 Barixakua FERNANDEZ
- 22 Zapatua YUDEGO
- 23 Domeka YUDEGO
- 24 Astelehena ETXEBERRIA
- 25 Martitzena IBAÑEZ
- 26 Eguaztena IBAÑEZ
- 27 Eguena GARITAONANDIA
- 28 Barixakua ETXEBERRIA
- 29 Zapatua IBAÑEZ
Goizez, GARITAONANDIA

- 30 Domeka IBAÑEZ
- 31 Astelehena GARITAONANDIA

ABUZTUA

- 1 Martitzena FERNANDEZ
- 2 Eguaztena BARRENETXEA
- 3 Eguena IBAÑEZ
- 4 Barixakua BARRENETXEA
- 5 Zapatua ETXEBERRIA
- 6 Domeka ETXEBERRIA
- 7 Astelehena FERNANDEZ
- 8 Martitzena ETXEBERRIA
- 9 Eguaztena BARRENETXEA
- 10 Eguena ETXEBERRIA
- 11 Barixakua IBAÑEZ
- 12 Zapatua BARRENETXEA
- 13 Domeka BARRENETXEA
- 14 Astelehena ETXEBERRIA
- 15 Martitzena ORUESAGASTI
- 16 Eguaztena YUDEGO

- 17 Eguena ORUESAGASTI
- 18 Barixakua GARITAONANDIA
- 19 Zapatua FERNANDEZ
Goizez, YUDEGO
- 20 Domeka FERNANDEZ
- 21 Astelehena GARITAONANDIA
- 22 Martitzena YUDEGO
- 23 Eguaztena FERNANDEZ
- 24 Eguena ORUESAGASTI
- 25 Barixakua ORUESAGASTI
- 26 Zapatua GARITAONANDIA
- 27 Domeka GARITAONANDIA
- 28 Astelehena IBAÑEZ
- 29 Martitzena GARITAONANDIA
- 30 Eguaztena YUDEGO
- 31 Eguena ORUESAGASTI

IRAILA

- 1 Barixakua YUDEGO

GUARDIAK 20:00 - 22:00

Guardia Elgoibartik kanpora de-
nean, asteburuetan izan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26
943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustin, 3 - 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza
4, Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Aire Libreko Zinea (Kalegoen Plazan)



'Memoriaren ganbaratik'

14 barixakua, 22:30

'Trolls'

15 zapatua, 22:30




'Vuelta a casa de mi madre'

22 zapatua, 22:30

'Ballerina'

23 zapatua, 22:30




'Un monstruo viene a verme'

28 barixakua, 22:30

'Zikoinak'

29 zapatua, 22:30



'Cantabrico'

30 domeka, 22:30



IRAZABAL

clínica dental



Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziala esan hobak. GALDETU



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Ainhoa Zulueta
DENTISTA
Astelehenez ostiratarera
8:00hast. 22:00hast.
Zapatuetan
10:00hast. 14:00hast.

Jose Inazio Sarasuari eskainiko diote aurtengo Nazioarteko Folklore jaialdia, eta estreinakoz Maalan izango da

Uztailaren 21erako antolatu du Haritz Dantzari Taldeak Nazioarteko Folklore jaialdia, eta estreinakoz, Maalako parkean egingo dute. Aurtengo jaialdia berezia izango da, izan ere, iaz hil zen Jose Inazio Sarasuari eskainiko diote, bera izan zelako jaialdia Elgoibarrera ekarri zuena. 1987. urtean ospatu zen lehen aldiz Elgoibarko Nazioarteko Folklore jaialdia, Ikastolako frontoian. Handik aurrerako edizioak Olaizaga kiroldegian egin izan dira, eta aurten jaialdia kalera ateratzea erabaki dute. Jaialdiaren has-tapenetan Sarasuak eginiko lana errekonozitzeko berari es-

kainiko diote aurtengo edizioa. Haritz dantza taldeko kideek esan dutenez, ezinbestekoa izan zen Jose Inazio Sarasuak jaialdi hau sortu eta aurrera ateratzeko egin zuen lana: "Haritz dantzari taldeko zuzendari, txistulari, gidari eta laguntzaile ordezkazena zendu da aurten eta berari eskaini nahi diogu aurtengo 31. edizioa", idatzi dute.

Urtero bezala, munduko hainbat dantza mota ikusteko aukera izango da Folklore jaialdian: Indiako Rangagar eta Txu-vaxia estatuko abesbatza eta dantza taldea arituko dira aurten Haritzekin batera. Ikuskizuna 22:30ean hasiko da.

INDIA - Rang Sagar

India tradizio eta kultura aberatsa duen herrialdea da. Rang Sagar taldea Indiako kultura koloretsuaren isplua da. Rang Sagar duela 15 bat urte eratu zen Indiako kultura ezagutarazteko helburuarekin. Azken hamar urteetan, taldeak, Indiako bertako hainbat programatan zein nazioarteko folklore dantza eta musika jaialditan parte hartu izan du.



CHUVASHIA - Estatuko abesbatza eta dantza taldea

Chuvashiako abesbatza eta dantza taldea 1924an sortu zen. Hasiera batean, herri-abestiaren abesbatza zen, baina geroago dantza tradizionalak gehitu zituzten erreperorioan. Horretarako Alexander Angarov koreografoaren laguntza jaso zuten. Taldearen programa oso anitza da, eta, besteak beste, folkloreko kantudantzak eta herrialdeko jolasak jasotzen dituzte.

Haritz EDT - Elgoibar

Elgoibarko Folklore jaialdian estreinakoz egingo den dantza batekin hasiko du Haritzek aurtengo emanaldia. 2013. urtean Iruñeko Duguna dantza taldeak soka-dantza berezia moldatu zuen San Blas egunean eta San Joan bezperan dantzatzeko. Nafarroako zenbait soka-dantzatan gertatzen den bezala, sokan hasi eta ingurutxoan bukatzen da dantza. Haritz dantzari taldeko kideei Dugunako zuzendari den Aritz Ibañezek erakutsi die soka-dantza.



Arg.: Soarte



Jose Ramon Salegi Urain

2017ko uztailearen 6an hil zen.



*"Joserra,
zure arrastoa
ez dugu berehala
ahaztuko"*

Kimetz Elkartea



Jose Gabiola Altuna

2017ko uztailearen 9an hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.*

Etxekoak



I. URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailearen 18an hil zen, 57 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztaileak 22,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

*Ezin ikusi,
baina bai senti.
Joan zinen arren,
gure bihotzean
beti zaude
bizirik.*

Etxekoak





MAALAKO Parkean



HARITZ E.D.T.

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXXI. FOLKLORE JAIALDIA

ESTATUKO DANTZA TALDEA - *TXUVAXIA*
RANGSAGAR - *INDIA*
HARITZ EDT - *EUSKAL HERRIA*

2017ko uztailaren 21ean, ostirala

22:30ean, MAALAKO Parkean



ELGOIBARKO
UDALA

elgoibar
EUSKAL
UDALAKO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKAL FOLKLORE
JAIALDIA

